

AURKIBIDEA

1. Sarrera	2
2. UAEAen lan-bilerak.....	3
3. Langileak eta lan-karga.....	4
4. Materialak eta alderdi informatikoak.....	6
5. Aurkeztutako erreklamazioak.....	7
6. Izapidetutako erreklamazioak	8
7. Ebatzitako erreklamazioak	9
8. Ebazteko dauden erreklamazioak	10
9. Epaien nondik norakoak	11
10. Arazoen gaineko iruzkinak	13
11. Donostiako UAEAren epaiak jakinaraztea.....	14
12. Eskatutako irizpenak	14
13. Egindako irizpenak	15
14. Ondorioak.....	16

1. SARRERA

Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboak, tokiko gobernuak modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeari esker sortu zirenak, errekurtsogileen eskubideen babes judizial eragingarriaren printzipioa aplikatzeko daude, eta funtzionamendu independentea du, aipatutako legean arrazoiak xedatzerakoan idatzi bezala. Auzitegi horiek oso garrantzitsuak dira, erreklamazio ekonomiko-administratiboen ebazpenek emango baitute auzibidetik joateko aukera.

Udalari aurkezten zaion Donostiako Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren jardueren memorian, 2007. urtean egindako lana jasotzen da.

Auzitegiak eta hango idazkaritzak egindako lana aztertzen da. LRBRL-ELOAlean eta Udal honetako Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Erregelamenduan xedatutako Auzitegiaren eta Idazkaritzaren funtzioei jarraiki, honako da haien lana: alde batetik, eta funtsean, zergen kudeaketan, likidazioan, bilketan eta ikuskaritzan erreklamazioez arduratzea eta horiek ebaztea; eta, bestetik, Udalaren eskumeneko zuzenbide publikoko sarrerak biltzea, bereziki udal-zehapenei dagozkienak; eta azkenik, Ordenantza Fiskalen Proiektuaren irizpena egitea.

2007ko abenduaren 31n idatzitako memoriak urte natural horretan egindako lanari buruzko informazioa jasotzen du, eta grafiko konparatiboak dakartza,

azken bi urte eta erdi hauetan (2005eko ekainaz geroztik, hain zuzen) egindako erreklamazioen eboluzioa azaltzeko, bai eta ebatzitako epaien nondik norakoa eta erreklamazioak izapidetzean eta ebazpenak egitean izandako lan-karga azaltzeko ere.

2007an, jarduerak hobera egin du, eta hori da, hain zuzen, auzitegiaren helburu eta funtzio nagusia. Grafikoetan, 2007. urtean izandako eboluzio positiboa ikus daiteke, eta aurrerago adieraziko den moduan, 2007ko datuei buruzko ondorioak ere azaltzen dira: 2006ko urtarriletik 2007ko apirilera arte ebatzitako erreklamazioen aldia urte natural batekoa baino luzeagoa da.

Egiaztatzen da 2006an 2007an baino erreklamazio gehiago ebatzi zirela. Izan ere, aldi hartan, kudeaketa-organoak (hau da, Udal Zerga Biltzaileak) txostenak bidali zituen, auzitegiak erreklamazio batzuk estima zitzan proposatzeko. Horregatik, 2006an, aurkeztutako erreklamazioak baino epai gehiago ebatzi ziren, kontuan izan gabe 2007an ere joera horri eutsi zaiola.

2. UAEA-EN LAN-BILERAK

UAEAek dituzten arazoak ezagutzeko, 2006an urtero lan-bilerak egitea proposatu zen, eta, jada 2007an, udal-auzitegi guztiak bildu gara.

Bilera horietan, auzitegiei gehien eragiten dieten eskumenei buruzko arazoak aurkeztu ziren, eta, bilera horiei esker, jaso litezkeen erreklamazioen edozein gai kudeatzeko moduak eta doktrina-alderdiak jakinarazten dizkiote elkarri.

Bilera horietan, proposatu zen etorkizunean auzitegi batzuek sistema informatiko bat sortzea erreklamazioen eta doktrinaren datu-base bat erabili ahal izateko. Sistema hori, auzitegiek erabiltzeaz gainera, interesa duen edonork edo erreklamatzeko eskubidedun titular batek ere kontsulta dezake.

Madrilgo UAEAk jakinarazi digu udal-webgune bat zabaldu dela Madrilgo Auzitegiak bereziki erabiltzeko, eta, interesatuentzako informazio lagungarria izateaz gainera, beste auzitegiei laguntzeko beren doktrina azaltzen dute webgunean.

3. LANGILEAK ETA LAN-KARGA


2007ko irailaren 25ean, udalbatzak berriz aukeratu zituen auzitegirako hiru kide, eta 2005eko maiatzaren 1ean izendatutako kide berak ziren, udalekoak ez direnak eta harekiko independenteak direnak: presidentea, Javier Herrero Aparicio jauna; eta organoko kideak, Sofia Arana Landin andrea eta Juan Santos Lopez Anton jauna. Beraz, auzitegiak guztiz independente funtzionatzen du.

2005ean auzitegia sortu zenez geroztik, auzitegiko idazkaritzarako adskribitutako administrari eta teknikari berek jarraitzen dute: Finantza Zuzendaritzako Lege Zerbitzuan lan egiten duten bi funtzionarioak, hau da, Lege Zerbitzuko burua (auzitegiko idazkaria ere bada) eta administrari bat.

Auzitegiko idazkaritzaren lan-karga urte guztietan berdina da. Bertan arduratzen dira erreklamazioak izapidetzeaz, epai-proposamen guztiak idazteaz eta Ordenantza Fiskalak aldatzeko proiektuen txostenak idazteaz, gero auzitegiak irizpena eman dezan.

2007an, epaiak ebazteko batez besteko epea, erreklamazioa aurkezten den momentutik kontatzen hasita, zortzi hilabetekoa izan da. Epe horretan egiten dira espedienteak, informazioa zenbait datu-basetan egiaztatuz. Lan hori egiteko eta, gero, auzitegira bidaltzeko, batez besteko epea bost hilabetekoa da.

Erreklamazioak ebazteko, sei hilabeteko epea xedatu zuen udal honetako Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Araudiak.



Esan behar da erreklamazioak ebazteko sei hilabeteko epe hori Legeak eta Zergen Arau Orokorrak ezartzen dutela, baina soilik prozedura laburtuetarako (hemen erabiltzen ez direnak). Nabarmendu behar da, baita ere, urtebetekoa dela prozedura orokorraren bidetik (auzitegi honetan izapidetzeko erabiltzen dugun prozedura, alegia) izapidetutako erreklamazioak ebazteko epea, zeina beti bete izan baita.

Nahiz eta auzitegi honen helburua erreklamazioak sei hilabeteko epean ebatzea izan, aurten ezin izan da epe hori bete; alde batetik, aipatutako bi funtzionarioek bakarrik egiten dutelako lan; eta, bestetik, 2005eko ekainaren 9an auzitegia sortu baino lehenago, aurkeztutako erreklamazio-kopurua oso handia zelako. Atzerapenak gaur egun arte iraun du, eta hori egiaztatzeko esan dezakegu, 2007ko azken bileran (abenduaren 12koan), maiatzean aurkeztutako erreklamazioen epaiak ebatzi zirela.

4. MATERIALAK ETA ALDERDI INFORMATIKOAK

UAEAREN egoitzak udaletxearen eraikinean jarraitzen du, Agirre Miramon kaleko 4. zenbakian, eta hamabosteroko bilerak udalaren lokalean egiten dira, Agirre Miramon kaleko 4. zenbakiko etxabearen.

Auzitegiko kideek dagoeneko erreklamazioen espediente osoak ikus ditzakete beren ordenagailutik, auzitegiko idazkaritzak kudeatzen dituen erreklamazioen datu-basea erabiltzeko baimena baitute. Izan ere, zirkulazio-zehapen espedienteak guztiz digitalizatuta daude, eta beste espedienteak auzitegiko idazkaritzak digitalizatzen ditu.

Hala, udalaren erronka da interesatuek –baimena ematen zaien pertsonak fisikoek eta juridikoek– aukera izatea erreklamazioak baliabide informatikoen bidez aurkezteko eta auzitegiko datu-basearen bidez espedienteak kontsultatzeko.

Halaber, barne-antolamendua hobetze aldera, erreklamazio-faseak euskarri informatikoan izapidetzea falta da; hala, espedientea eta ebatzitako egintzak euskarri informatikoan jakinaraziko dira. Aukera hori jada aurreikusi da udal honen Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Araudian.

5. AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOAK

ELOALAREN 137.1. artikularen a) idatz-zatian eta udal honen Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Araudiaren 1. artikuluan xedatzen da auzitegi honi dagokiola *udalaren eskumeneko zuzenbide publikoko diru-sarreraren eta zergen kudeaketa, likidazio, bilketa eta ikuskaritzaren gainean egindako erreklamazioez arduratzea eta horiek ebaztea.*

Erreklamazio ekonomiko-administratiboak garrantzitsuak dira, ezinbesteko baliabideak baitira interesatuak, gero, auzi-bidetik joateko aukera izan dezaten.


2007an, honako erreklamazio hauek aurkeztu dira UAEAn; eta espediente-zenbakiaren, erreklamazio-gaiaren eta aurkezpen-dataren arabera sailkatu dira datuak.

AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOAK			
GAIAK	2005	2006	2007
JEZ	1	0	1
OHZ	6	2	2
EIOZ	1	2	1
TMIZ	1	5	2
HLBIZ	0	14	4
MISTOA	3	2	1
TAO	0	3	0
Jabariengatiko tasa	1	5	2
Zerbitzuengatiko tasa	6	3	6
Lizentziengatiko tasa	2	3	1
Prezio publikoak	0	0	1
Zirkulazio-zehapenak	681	515	495
Hirigintzako zehapenak	0	1	2
Beste zenbait	1	2	2
Guztira	703	557	520

6. IZAPIDETUTAKO ERREKLAMAZIOAK

Grafikoan azaltzen den bezala, 2007an 520 erreklamazio aurkeztu ziren, 634 erreklamazio izapidetu eta 568 ebatzi.


Datu horietan adierazten denez, urtero aurreko urteko erreklamazioak izapidetzen eta ebatzen dira.



7. EBATZITAKO ERREKLAMAZIOAK

Idazkaritzari espedienteak osorik eman ostean hasten da erreklamazioak izapidetzeko eta ebazteko lana; beraz, erreklamazioak ebazteko lana zenbatekoa izango den neurtzeko, garrantzitsua da erreklamazioak nola izapidetu diren aintzat hartzea. 2007an, izapidetutako 634 erreklamazioetatik 568 ebatzi ziren.


Bestalde, zerga-erreklamazioen eta diru-bilketaren gaineko erreklamazioen ebazpenen-analisan, auzitegiak, 2005eko ekainean sortu zenetik, beti uste izan du egindako erreklamazio guztiak berehala ebatzi behar direla, nola zerga-egintzen gainekoak hala zuzenbide publikoko edozein diru-sarreraren gainekoak (zirkulazio-zehapenen diru-bilketen prozedurak ez direnak, betiere). Erreklamazio horiek berehala ebazten dira, eta zirkulazio-zehapenak betearazteko prozedurak, berriz, iristen diren ordenan izapidetzen dira, eta ordena hori da, legearen arabera, ebazteko jarraitu behar dena.



8. EBAZTEKO DAUDEN ERREKLAMAZIOAK

2007ko abenduaren 31n, 390 erreklamazio zeuden ebazteko, guztiak fase desberdinetan. Horietatik, 255 espediente (espedienteen % 65,38) kudeaketa-organoak –auzitegiari espediente osoa bidaltzen dionak– ez zituen izapidetu, eta 135 espediente (espedienteen % 34,62) izapidetu eta auzitegiko idazkaritzara bidali zituen, han azter zitzaten.


2007ko abenduaren 31ra arte egindako lan-kopuruari dagokionez, berriz, bi urte eta erdi hauetan aurkeztutako 1.807 erreklamazioetatik, 1.417ren espedienteak egin dira, hau da, erreklamazioen % 78,42k epai bat dute.




9. EPAIEN NONDIK NORAKOAK

2007. urtean, askoz ere erreklamazio gehiago ezetsi dira: 310 espediente ezetsi dira, eta 135 baietsi.

Honako grafiko honetan, ebatzitako epaiak nolakoak izan diren azaltzen da: baietsiak, partzialki baietsiak, prozeduraz kanpo adostuak, ezetsiak eta onartezinak; eta, horrez gainera, mota bakoitzeko epai-kopurua agertzen da.




Honako bi grafiko hauetan, 2006an eta 2007an izandako epai baietsien eta ezetsien arteko aldea ageri da ehunekotan:




10. ARAZOEN GAINEN IRUZKINAK

Zerga-erreklamazioetan, udal-zerga guztiak barne hartzen dira; hala nola, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Hiri Izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga, Eraikuntzen gaineko Zerga, Ibilgailuen gaineko Zerga, ur-tasa,



TAOren tasa, bide publikoko mahai eta aulkien tasa, eta irekitzeko lizentzien gaineko tasa.

Egindako beste erreklamazioetan, azpimarratu behar dira zirkulazio-zehapenak betearazteko prozeduretan izaten diren arazoak. Erreklamazioen % 85,86 premiamendu-probidentziaren gainekoak dira; hori da, hain zuzen, betearazteko prozeduraren hasiera. Izan ere, betearazteko prozedura amaitzeko –hau da, bahiturak egiten hasteko– denbora gehiago behar denez, inpugnazio gutxiago daudela frogatu da.



11. DONOSTIAKO UAEA-REN EPAIAK JAKINARAZTEA

Tributos Locales (Udal Zergak) izeneko aldizkariak, udaleko auzitegiek eta edozein interesatuk doktrina kontsultatzeko aukera izan dezaten, Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboak ebatzitako epaiak argitaratzen ditu.

2007an, auzitegi honetako zergei buruzko zenbat epai argitaratu dira.

12. ESKATUTAKO IRIZPENAK

ELOALaren 137. 1. artikulua b) idatz-zatian eta Donostiako Udalaren Erreklamazioak Ebazteko Araudiaren 1.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, auzitegiari dagokio Ordenantza Fiskalen Proiektuei buruzko irizpena egitea.

2007ko irailaren 28an Tokiko Gobernu Batzordeak 2008ko Ordenantza Fiskalak aldatzeko zenbait irizpen onartu zituen, eta, urriaren 4an, Zerbitzu Orokorren Zinegotzi Ordezkariek auzitegiari eskatu zion Ordenantza Fiskal horiei buruzko irizpena. 2007ko urriaren 11n, Ordenantza Fiskalen proiektu horietan aldaketak onartu zituen Tokiko Gobernu Batzordeak, gero, udalbatzan izapidetu zitezten. Oro har, karga-tasei eta zerga-kuotei buruzko aldaketak dira, baita haien testuen aldaketa hauek ere:

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalean, zergari buruzko 12/1989 Foru Arauaren 1. eta 4. artikulua egokitu dira.
- Hiri Izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalean, jarauntsiagatik hobariei buruzko 7.2. artikulua aldatzen da, eta karga-tasak eguneratzen dira.
- Udal Hilerrietan Zerbitzuak emateagatik Tasa arautzen duen Ordenantza Fiskalean, tarifa berri bat ezarri da, eta indarrean daudenak eguneratu dira.
- Zerbitzuak emateagatik eta Udal Jarduerak Egiteagatik Tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskalean, bi tarifa berri ezarri dira eta indarrean dauden Bidaiarientzako Garraio Publikoaren Hiriko Zerbitzuengatik Tasak eguneratu dira.
- Hirigintza zerbitzuak emateagatik tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskalean, testua aldatu da Lurzoru eta Hirigintza 2/2006 Legea egokitzeke.

13. EGINDAKO IRIZPENAK

Auzitegiak, 2007ko urriaren 11ko bileran, eskatutako irizpenak eman zituen, eta proposamenen aldekoak izan ziren guztiak, Hiri Izaerako Lursailen Balio Igoera arautzen duen Ordenantza Fiskaleko jarauntsiagatik hobariei buruzko 7.2. artikuluari zegokion proposamenaren irizpena izan ezik. Zehazki, honako hauen irizpenak eman ziren:

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
- Hiri Izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga.
- Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga.
- Ibilgailuak bide publikoetan aparkatzeagatik tasa.
- Jabaria okupatzeagatik tasa.
- Zaborrak biltzeko zerbitzuagatik tasa.
- Saneamendu-zerbitzuagatik tasa.
- Honako zerbitzu hauengatik tasak: bidaiarien taldekako hiri-garraioa, hondartzak, Artikutza, osasuna, larrialdietarako harrera, dokumentuen kopia eta kartografia.
- Bide publikoetan ibilgailuak ibilgetzeko zerbitzuagatik tasa.
- Zabaltzeko lizentziak emateagatik tasa.
- Hirigintzako Lizentziak emateagatik tasa.
- Hirigintza-zerbitzuak emateagatik tasa.

14. ONDORIOAK

2007ko estatistikak aztertu ondoren, zehapenak betearazteko prozeduren erreklamazioek sortzen dituzte arazo gehien.

Informatikari buruzko erronka handiena falta da: erreklamazioak izapidetzeko prozedurak informatizatzea, alegia.

Helburu hori betez gero, interesatuek baliabide informatikoak erabili ahal izango dituzte erreklamazioak aurkezteko, eta, hala, auzitegiko idazkaritzak sistema informatikoaren bidez jakinarazi ahal izango ditu izapideak, ebazpenak eta epaiak.

Donostian, 2008ko urtarrilaren 24an.

Auzitegiko idazkaria,

Auzitegiko presidentea,

Izpta. Maite Amunarriz Yeregui.

Izpta. Javier Herrero Aparicio.